

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Jose Araolaza Lahidalga

*Zizurkil,
Gipuzkoa
(1943-2024)*

Aurkibidea



Biografia



Juan Jose Araolaza Zizurkilen jaio zen 1943an. Aita tolosarra eta ama azpeitiarra zituen; Zizurkiletik Elgoibarrera bizitzera joan zen 11 urte zituela, aitaren lana zela eta. Zaragozan ikasketak egin zituen eta Elgoibarrera bueltatu zenean, Ongarri Kultur Elkarteko kide bilakatu zen. Felix Etxeberria *Parapan* eta Luis Bilbaoren bitartez, Elgoibarko Izarrako lehendakari kargua hartu zuen. Elgoibarko Ikastolaren zuzendaria izan zen, ikastola legalizatu aurretik eta osteko urteetan. Elgoibarko Izarraz, ikastolen lokalei buruz, irakasleez, diru-laguntzez, eraikin berriaren beharraz, herriaren inplikazioaz, eta abar hitz egin zuen, Elgoibarko Euskararen Historia Soziala proiekturako egindako elkarrizketan.

Zintak

ZIZ-023

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Elgoibarren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2022-06-09
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Abertzalea izateagatik lanetik kaleratua izan zen aita

- **Erref:** ZIZ-023/004
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:02:41. **Bukatu:** 00:05:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Zizurkilen aita udal-langilea zen. Etxean euskaraz egiten zuten, baina umetan

irakurzaletasun handia zuenez, gaztelaniaz ere moldatzen zen. Aita udaletxetik bota zuten EAJri botoa eman eta abertzalea izateagatik.

2. Zaragozan eta Madrilen euskaraz hitz egiten

- **Erref:** ZIZ-023/008
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:11:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Zaragozara ikastera joan zenean, Elgoibarko Rosa Garatek esan zion bere anaia Gotzon bisitatzeko. Gotzonekin astero elkartzen zen euskaraz hitz egiteko. Gero Madrilen podologia ikasketak egin zituen eta bertako ikasle euskaldunak beraien artean asko elkartzen ziren ekintzak egiteko: euskarazko mezak, hitzaldiak, alfabetatze klaseak...1970ean, ikasketak bukatuta, Elgoibarrera bueltatu zen eta Ongarri eta Izarra elkarteetan parte hartzen hasi zen.

3. Elgoibarko Izarra elkarte

- **Erref:** ZIZ-023/010
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:14:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Ongarri kultur elkarte Elgoibarko izarra baino lehenago sortu zen. Felix "Parapan" eta Luis Bilbao joan zitzaizkion etxera bila, Elgoibarko Izarrako batzordean sartzeko eta hurrengo lehendakaria izateko eskatzeko. Baiezkoa eman zien. Elgoibarko izarran gau-eskolak, euskal dantzak, euskarazko klaseak... antolatzen ziren.

4. Elgoibarko ikastolaren hasiera

- **Erref:** ZIZ-023/011
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:14:59. **Bukatu:** 00:16:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Elgoibarko emakume bat bere etxean ume batzuei euskaraz klaseak ematen hasi zen. Gero beste emakume bat hasi zen hari laguntzen eta gutxinaka ikasle eta irakasle kopuruak handitzen joan ziren. Hori izan omen zen Elgoibarko ikastolaren sorrera.

5. Elizaren laguntza ikastolaren ofizialtasunean

- **Erref:** ZIZ-023/012

- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:16:27. **Bukatu:** 00:19:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Gobernadore zibilak ikastola itxi nahi zuen, klandestinoak zirelako. Ikastolek ordurako federazio edo elkarte bat sortua zuten eta ofizialtasuna lortzeko elizaren laguntza behar zuten. Elgoibarren San Bartolomeko eskola parrokiak sortu ziren, Jon Beristain abadea buru zela. Ikasleek kartila ofizial batzuk behar zituzten eta Santa Klarako mojen bitartez lortu zituzten.

6. Ikastolarako dirua lortzen

- **Erref:** ZIZ-023/013
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:19:48. **Bukatu:** 00:22:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolako dirua lortzeko, urtero Odeon-en jaialdi bat antolatzen zuten. Agustin Gorostizak futbol partidak antolatzen zituen. Pilota partidak ere antolatzen ziren eta sarrerak saltzeko, frontoia itxi behar izaten zen.

7. Elgoibarko ikastola herrian sakabanatuta I

- **Erref:** ZIZ-023/014
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:22:39. **Bukatu:** 00:25:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Elgoibarko ikastolan gero eta ikasle gehiago matrikulatzen zirenez, Felix Parapan´en ideia baten bidez, bonuak saltzen hasi ziren eta horrela ikastolarako lokalak erosten hasi ziren. Bonuak zer ziren. Gure Kai S.A.</p>

8. Elgoibarko ikastola herrian sakabanatuta II

- **Erref:** ZIZ-023/015
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:25:43. **Bukatu:** 00:28:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Danobat eta Goiti lantegien laguntza handia izan zuen Elgoibarko ikastolak. Estatuak "Plan de Urgencias Vascongadas" planaren barruan eskola txiki biribilak eraiki zituen, haurrak hara bideratzeko. Elgoibarren, ordea, ia denak ikastolara joaten zirenez, Udalarekin adostu zen eskola biribil horiek ikastolak ere erabiliko zituela.

9. Elgoibarko ikastola herrian sakabanatuta III

- **Erref:** ZIZ-023/016
- **Iraupena:** 0:05:18. **Hasi:** 00:28:39. **Bukatu:** 00:33:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Hautzaindegi laborala Elgoibarren sortzeko, 3 milioi pezetako laguntza lortu zuten. Diru horrekin, gainera, Urasandi inguruan beste lokal bat erosi zuten ikastolarako. Maalako mojen eskola itxi zutenean, bertan ere hautzaindegia sortu zuten eta 3-4 irakasle hartu zituzten.

10. Tituludun irakasle euskaldunak aurkitzeko zailtasunak

- **Erref:** ZIZ-023/018
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:34:30. **Bukatu:** 00:37:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Tituludun irakasle euskaldunak aurkitzea izan zen eragozpen handienetarikoa bat. Hasierako irakasleetako batzuk: Itziar Ajuria, Jone Etxabe, Mari Juli Konde, Nekane Zubiaurre.... Irakasle tituludunak, Antton Aramburu, Andrés Alberdi, Alfonso Gilló... Alfonso Guillóri buruz.

11. Ikastolako irakasleak tituluak lortzen

- **Erref:** ZIZ-023/020
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:38:59. **Bukatu:** 00:42:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Hasieran, andereño eta maisuek derrigorrezko ikastaro pedagogikoa egin behar zuten. Bartzelonara joaten ziren urtero. Irakasle asko titulurik ez zutenez, Ikastolen Federazioa eta Eusko Jaurlaritza adostasun batera heldu ziren eta ikastaro horiek Eskoriatzan ematen hasi ziren, Bartzelonan beharrean. Horrela, askok tituluak lortu zuten. Erromatik ekarritako irakasleak.

12. Ikastolarako estatuaren diru laguntza nola lortu zuten

- **Erref:** ZIZ-023/021
- **Iraupena:** 0:05:40. **Hasi:** 00:42:00. **Bukatu:** 00:47:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Estatuak eskola pribatuei diru laguntzak bideratzeko plan bat atera zuen. Dirua lortzeko baldintzetako bat 8. mailara arteko ikasketak eskaintzea zen. Ez zutenez, talde bat bildu, Madrilera joan eta eskaera bertan aldatu zuten. 8. maila eskaintzen zutela adierazi zuten eskaeran, ikasle batzuk lortu zituzten martxan jartzeko gela hori, eta diru laguntza jasotzen hasi ziren.

13. Elgoibarko ikastolako eraikin berrirako lurzoru bila

- **Erref:** ZIZ-023/023
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:48:03. **Bukatu:** 00:51:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolaren legalizazio ofizialerako, gela eta lokal ezberdinetan sakabanatuta zeuden ikasleak batuko zituen eraikin berri bat behar zuten. Danobat-ek garai hartan, lurzoru bat zuen eta ikastolari eskaini zion. Luis Ulazia arkitektoak lurzoru gehiago lortzeko ideia bota zuen eta plan partzial baten bidez aurkeztu zen proiektua.

14. Elgoibarko Ikastolarako lurzoruen bila

- **Erref:** ZIZ-023/024
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:51:26. **Bukatu:** 00:54:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolarako lurzoruak erostera nola joan ziren. Erraztasun asko izan zituzten, Elgoibarren ikastola oso estimatua zelako. Marañon baserria.

15. Ikastolako eraikinarentzat dirua lortzen

- **Erref:** ZIZ-023/025
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:54:11. **Bukatu:** 00:58:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Elgoibarko ikastolaren eraikin berria eraikitzeko plan partziala aurrera atera zen, baina dirua behar zuten lurzoru guzti horiek erosteko. Herritarrei dirua eskatu zieten, etxez etxe. Etxe bakoitzaren diru-sarreraren arabera, kopuru bat edo beste eskatzen zuten. Zortzi milioi pezeta bildu zituzten herritarren artean. Enpresetan beste hainbeste bildu zen.

16. Ikastola eraikitzeko baimena nola lortu zuten

- **Erref:** ZIZ-023/026
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:58:05. **Bukatu:** 01:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Proiektua eta dirua izanda, ikastola eraikitzeko baimena falta zitzaien. Zarautzeko ikastola egoera berean zegoenean, bertako zuzendaria, Joxe Juan, eta bi herrietako alkateak, Donostiara joan ziren gobernadorearengana.

17. Frontoia Elgoibarko ikastolarentzat

- **Erref:** ZIZ-023/027
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 01:01:50. **Bukatu:** 01:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Elgoibarko ikastolaren eraikin berriari jolasleku gutxi diseinatu zitzaiola konturatu ziren. 800 ikasleentzat lekua behar zuen. Arkitektoak jatorrizko proiektua moldatu eta ikastolari frontoi bat atxikitu zitzaion.

18. Aubixako udalekua

- **Erref:** ZIZ-023/031
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:08:18. **Bukatu:** 01:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Zarauzko ikastolak Aiako baserri batean udaleku bat sortu zuen eta hori entzunda, Juan Joxek Elgoibarko ikastolarako gauza bera egin behar zela pentsatu zuen. Behin, mendiarteko zihoala Aubixako baserria ikusi zuen. Batzordean proiektuak aurrera egin zuen eta Aubixako konponketak auzolanez egin ziren. Begiraleak herriko gazteak eta irakasleak izaten ziren.

19. Haritz dantza-taldearen sorrera I

- **Erref:** ZIZ-023/035
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:13:43. **Bukatu:** 01:15:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Elgoibarko Haritz dantza-taldearen sorreraren nondik norakoak.

20. Haritz dantza-taldearen sorrera II

- **Erref:** ZIZ-023/037
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:15:57. **Bukatu:** 01:17:20

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Elgoibarko Haritz dantza-taldearen sorreraren nondik norakoak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-30

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com